

Unibertsitate-master ofiziala irakasle gisa aritzeko: matrikula epea irekita dago

2009/09/14

HUHEZIK **unibertsitate-master ofizial bat** antolatu du irakasle gisa lan egin nahi dutenentzat, eremu hauetan: **Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxillergoa, Lanbide Heziketa eta Hizkuntzen Irakaskuntza**. Bertan izena eman nahi duenak irekita du epea, **irailaren 25a arte**.



Eskolak **euskaraz** emango dira, aurrez aurre, baina B1 mailako atzerriko hizkuntza beharrezkoa da masterra gainditzeko. Masterrak ikasturte bat iraungo du, **irailetik ekainera**, eta masterraren amaieran ikasle guztiek aurkeztu beharko dute **Master Amaierako Lana**. Astean lau egunez emango dira eskolak, **astelehenetik ostegunera bitartean**, arratsaldean (15:00-20:00), eta bertan uztartuko dira saio teorikoak eta praktikoak. Praktika saioei dagokienez, goizez egingo dira (09:00-14:00), ikastetxeetan.

Espezialitateak eta metodologia

Bederatzi espezialitate ezarri dira master honetan, arreta berezia eskainita EAEko lan eskaintza publikoan parte hartu ohi duten irakasleei:

- Zientzia esperimentalak
- Gizarte-zientzia, Geografia eta Historia
- Matematikak
- Teknologia
- Orientazio Psikopedagogikoa eta Profesionala
- Heziketa Fisikoa eta Kirol-jarduerak
- Hizkuntza eta Literatura
- Administrazioa eta Enpresa
- Komunikazio-prozesu eta bideak

Metodologiari dagokionez, **Araoetan Oinarritutako Ikasketak** erabiliko dira masterrean. Ikasleak kasuak aztertu, arazoei irtenbidea bilatu, eta proiektuak gauzatu beharko ditu.

Informazio gehiago nahi duenak egin dezala klik ondoko lotura honetan, bertan ikusiko ditu-eta xehetasunak masterraren gainean.

- [Unibertsitate-master ofiziala irakasle gisa aritzeko.](#)